

HITZARMEN BERRIAREN ALDEKO MOBILIZAZIOAK: ATZO, ELKARRETARATZEAK GASTEIZEN, BILBON ETA DONOSTIAN

Atzo, abenduaren 19an Gizarte Ekimeneko ikastetxeen langileen elkarretaratzeak burutu ziren Gasteizen (Marianistas ikastetxearen aurrean), Bilbon (Indautxu plazan) eta Donostian (Kristau Eskolaren egoitzaren ondoan). Bilbokoa izan zen jendetsuena, 500 bat langilek benetako negoziazioa eskatu zutelako bertan. Mobilizazio hauek abisu bat izan da, Kristau Eskola eta AICEren pasibotasunaren aurrean. Jarreraren aldaketa agertzen ez badute, mobilizazio gehiago eta irmoagoak etorriko dira.

BATZORDE PARITARIA ETA LANSARIEN ZORRA: ORDAINKETA ESKUORDETUAREN TAULAK ARGITARATU DITUZTE

Azkenik joan den astean argitaratu zituen Hezkuntza Sailak bere web orrian 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egon behar diren ordainketa eskuordetuaren taulak. Irailean langile publikoen soldatek %1eko igoera izan zituztenetik zain geunden noiz gaurkotuko ote ziren 2016ko taulak.

Taula berri hauetan %1eko igoera aplikatu diote bai oinarrizko soldadari bai antzinatasunari. Igoera horrekin **haur hezkuntzako bigarren zikloan, lehen hezkuntzan eta DBHko lehen zikloan oinarrizko soldata hitzarmeneko baina altuagoa da.** Horrela ikasmila hauetan ikastetxeek 2010an (finantziazio moduluan murrizketak ezarri ziren urtean) baino diru gehiago jasoko dute. DBHko bigarren zikloko oinarrizko soldata eta aintzinatasun guztiak oraindik daude 2008-9 hitzarmeneko taulen azpian.

Azpimarratu behar dugu igoerak ez duela inolako eraginik irakaslen soldatan, hitzarmen berri bat sinatu arte 2008-2009ko taulak direlako indarrean daudenak. Baina bai eragiten du aktibatzea Batzorde Paritarioak lansarien murrizketen ondorioz aspalditik errestaka eramaten dugun lansarien zorra kobratzeko prozesua.

STEILASek Batzorde Paritarioa lehen bait lehen biltzea eskatu du, beharrezkoa kalkulua egin, ikastetxeetara bidali eta urtarrileko nominarekin batera langile bakoitzari dagokion zorraren kantiteak ordaindu ahal izateko.

Irakaskuntzan STEILAS